



“Errege Kopako porrot biak gogorrak izan ziren barneratzeko, baina burua altxatzen jakin dugula uste dut”

Jon Morcillo debuteko denboraldi intentsoa bizitzen dabil, Athleticcek hiru final jokatu ditu eta. Testuinguru estu horretan, taldean bere lekua egiten dabil apurka. Marcelino Toralek berarengan ipinitako konfiantzari golekin erantzun dio. Valladoliden aurka estreinatu zen eta Osasunaren kontra beste bat sartu zuen. • 2-3



Bizkargi, kafetegi bat baino askoz ere gehiago

Zornotza • Ia sei hilabete joan dira Zornotzako Bizkargi kafetegi sozialak ateak zabaldu zituztenetik. Ezohiko negoziua da, bertan irabazitakoa proiektu sozialera bideratzen dute eta. Tokiko produktuak sustatu eta topaleku bat eskaintzeaz gainera, lokalagaz herritar migratzaileei laguntzen diete. Irati Aiesta da proiektuaren sustatzaileetarikoa bat • 6

Martxan da Durangaldeko elikagaiak ezagutarazteko proiektu berria

Durangaldea • Baserritar ekoizleek, dendariak eta Urkiola Landa Garapenak proiektu berri bati ekin diote eskualdeko elikagaien ikusgaitasun handiagoa emateko. Proiektuak 'Elikatu Durangaldea' du izena eta eskualdeko 45 baserritar eta 22 dendari batu dira bertara. Durangaldeko produktuek etiketa identifikagarri bereziak izango dituzte komertzioetan. Urkiola Landa Garapeneko presidente Orlan Isoirden esanetan, elikadura proiektu hau "Durangaldetik, Durangaldeko eta Durangalderako" bokazioz jaio da. • 5





**Jon Morcillo
Conesa**

Athletic Clubeko
futbolaria

ZORNOTZA | 1998

“Marcelinok ni neu izateko eskatzen dit, ausarta izateko eta aukera dudanean aurkariaren bila joateko”

Jon Morcillo denboraldi hasieran zuen protagonismoa berreskuratzen dabil azken jardunaldietan, entrenatzaile berriaren eskutik. Estreinako denboraldi intentsoa izaten ari da berarentzat, Errege Kopako final biengaitik batez ere.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Jokalari zornotzarrak golak sartu erantzun dio berarengan ipiniriko konfiantzari. Talde nagusiagaz Valladoliden aurka estreinatu zen area kanpotik eginiko jaurtiketa bati eskerrak. Joan zen asteburuan berriro zulatu zuen aurkariaren atea, Osasunaren kontra.

Athleticen lehenengo taldean zaude- netik unerik gozoenean zaude?

Bai... eta ez. Liga hasi zenean, lehenengo bost partiduak titular jokatu nituen. Abentura honen hasierahasieran, bigarren taldetik igotzea eta nire burua titular ikustea itzela izan zen. Granadan debuta egiteaz gainera, hasierako hamaikakoa hainbat partidu kateatzea lortu nuen. Orain ere banabil minutu

batzuk jokatzen, eta badaukat jarraikortasun bat taldean. Momentu biak izan dira gozoak.

Denbora luzea neraman lehenengo golari itxaroten. 30 partidu baino gehiagotan hainbat aukera izan dut, batzuk garbi-garbiak.

Marcelino Garcia Toral heldu denetik zugan konfiantza duela sentitzen duzu?

Heldu zen unetik bertatik jokalaria guztiakin izan du hartu-eman. Niri lehenengo unetik helarazi dit bere konfiantza, eta aintzat hartzen nauela esan dit.

Zelakoa da Marcelino eguneroko tratuan?

Langilea da eta ideiak oso argi ditu. Eman dezakegun dena eskatzen digu eta muga-mugaraino eramaten gaitu. Gainera, esan behar dut badakiela noiz jokatu serio eta noiz lasaiago edo umoretsuago. Nik alderdi biak ikusi dizkio, eta izan behar duenean gertuko pertsona da.

Joan zen astean, entrenamenduko bideo batean zugaz luze eta zabalberba egiten ikusi genuen. Zer esan zizun? Zer gura du zugandik?

Jarraikortasuna dudanean unetan, jokalaria hobea izateko zertan hobetu behar dudanean azaltzen ahalegintzen da. Marcelinok ni neu izateko eskatzen dit; ausarta izateko, baloia oinetan dudanean aurkariaren bila joateko eta aukera dudanean atera jaurtitzeko. Eta, jakina, intentsitatea eta lana eskatu dizkit. Askotan errepikatzen duen gauza bat badago, hauxe da: lehen mailako jokalaria batek erasoan ondo ibili behar duela eta ondo defendatu behar duela.

Konfiantza hartzeko ez dago gola baino errezeta hoberik. Garrantzi handia izan zuen zuretzat Valladoliden kontrako estreinako golak?

Denbora luzea neraman itxaroten. 30 partidu baino gehiagotan hainbat aukera izan nuen gola sartzeko, batzuk garbi-garbiak. Azkenean, gola sartu nuenean, adrenalina guztia askatu nuen eta emozio handiko unea izan zen. Aldi berean, barruan nuen arantza bat kentzearen parekoa izan zen.

Gola sartu eta zerura begiratu zenuen. Nori eskaini zenion?

Aititari, amaren aitari. Ez ninduen ezagutu. Ama nigaz haurdun zegoela hil zen. Oso futbolzalea zen eta txiki-txikitatik mundu guztiak esaten dit aitita oso harro egongo zela nitaz. Debutatu nuen egunetik argi nuen nire lehenengo gola berrari eskainiko niola.

Bigarrena norentzat izan da?

Ilara luzea dut zain! Finago ibili beharko dut golak sartzeko.

Bilbao Athletic egaz Tudelanori sartu zenion gol bat sekulakoa izan zen: zelai erditik jaurti eta atezainaren gainetik sartu zenuen. Bietako zein aukeratuko zenuke, gol hura ala Valladoliden kontrakoa?

Tudelanoren kontrako gol hark hedabideen arreta erakarri zuen eta jendearen ahotan egon zen. Horrelako golak ez dira eguneroko sartzeko. Baina ez dago debuteko go-

Umetan nigaz jokatu duen edo jokatzen ikusi nauen edonork badaki oso neurekoia nintzena. Baina lortu dut hori aldatzea

laren modukorik. Zoriontsuen egin nauen gola izan da.

Bilbao Athletic egaz jokaturiko azken denboraldian 10 gol sartu zenituen 29 partidutan. Betidanik izan duzu

golerako usaimen hori ala denboragaz lortu duzu?

Txikitik gol asko sartzeko nituen. Oso neurekoia ere banintzen. Neure jokaldia egiten ahalegintzen nintzen askotan. Hazten eta heltzen joan ahala, taldeko jokoaren kontzeptuak barnetatzen joan naiz, taldea norbere buruaren gainetik dagoela ikasten. Hala ere, beti izan naiz anbiziotsua alderdi horretatik eta urtero sartu izan ditut golak.

Zelai barruan, izaera berekoia alde batera uztea kosta egiten den zerbait da?

Umetan nigaz jokatu duen edo jokatzen ikusi nauen edonork esango dizu oso neurekoia nintzena. Baina lortu dut hori aldatzea. Gaztea naiz, esperientzia falta zait eta badakit oraindik zelai barruan hartzen ditudan erabaki denak ez direna egokienak, baina akatsetatik ikasten ahalegintzen naiz, egunetik egunera jokalaria konplotoagoa izateko.

Ezker hanka hori: potentzia eta zehaztasuna berezkoak dira ala landu egiten den zerbait da?

Nire kasuan, berezkoak dira. Baloia ia ni baino handiagoa zen umetako bideoak erakutsi izan dizkit aitak eta orduan ere gogor jotzen nuen baloia. Hankako potentzia ez da beren beregi entrenatu dudanean zerbait. Ezta zehaztasuna ere.

Etorkizunean taldeko penalti jaurtitzailerik ikusten zaitut.

Egon naizen taldeetan neuk bota izan ditut penaltiak. Esaterako, Bilbao Athleticen iaz. Lehenengo

taldean hainbat jokalaririk dago nire aurretik, eta etorkizunean batek daki nork jaurtiko dituen. Oraingoz, penaltien txandekin konformatu beharko dut, Betisen kontratatu zen moduan [Errege Kopako finalerdietan].

Athleticen sartzea ez zen bide erraza izan zuretzat. Behin baino gehiagotan entzun behar izan zenuen 'ez' berba. Lehenengoz, hamaika bat urte zenituela.

Horrela da, bai. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan nabilen orduan. Gogoan dut Xabi Etxeita zela nire entrenatzailea. Urte ona neraman eta Athletic egaz proba batzuk egitera deitu zidaten. Imaginatu nire ilusioa! Athleticera heltzea da ume guztien ametsa. Baina oso txarto pasatu nuen. Nire adineko ume pila bat ikusten nuen, eta denak helburu beragaz. Oso urduri ipini nintzen eta probak txarto egin nituen. Ezin izan nuen neuririk erakutsi. Ez ninduten hartu.

Errege Kopako final biak galtzea gogorra eta barneratzeko gatxa izan zen. Baina porrot bien ostean burua altxatzen

Hurrengo urteetan ere ez zen zabaldu ate hori.

Kimu mailako azken urtean eta kadete mailako lehenengoan Athletic egaz entrenatzen nintzen, astean egun bitan. Baina orduan ere ez nuen klubean sartzerik lortu. Esaten zidaten banituela dohainak, baina jauzi bat ematea falta zitzaidala.

Orduan, beste erabaki bat hartu zenuen.

Bai, Durangoko Kulturalera batu nintzen. Kulturalerako kadeteen taldea Amorebietakoa baino gora-goko kategoria batean zegoen orduan. Hiru urte eman nituen han. Jubeniletako bigarren urtean oso ondo ibili nintzen eta orduan sartu nintzen Athleticen.

Behin Athleticera batuta, bere filiala den Baskonian eman zenuen lehenengo denboraldia. Eta denboraldi hura ere zen erraza izan.

Hasieran, jubilen taldean jokatu behar nuen, jubeni adina nuelako, baina denboraldi-aurrea baino lehenago iritzia aldatu zuten; zuzenean Baskonian sartu ninduten. Nire adineko jokalariek ere bazen, gazteagoak ere bai, baina saltoa handia zen. Hirugarren mailan jokalariek zailduta daude. Zenbait minutu jokatu nuen, baina beti eskatu izan didaten erregularitasuna falta nuen. Hala ere, asko ikasi nuen. Orduan jabetu nintzen, esaterako, gorputza zer punturaino zaindu behar den. Futbola nire ogibide bihurtu zen.

Erregularitasuna aipatu duzu. Ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait.

Denboragaz hobetu dudan alderdi bat izan da erregularitasuna. Baskonian egon nintzenean ez nuen lortu partidu asko kateatzerik hasierako hamaikakoan. Elitean partidu asko jarraian jokatzeko lortu nuen lehenengo aldia iazkoa izan zen, Bilbao Athletic egaz. Partidu bikenduta, gainerako denak titular jokatu nituen. Orduan lortu nuen sarritan eskatu didaten erregularitasun hori.

Xabi Etxeita zure entrenatzailea izan dela aipatu duzu. Baduzu hartu-emanik beragaz?

Getafe taldean dabil eta bere kontra jokatu dut. Kamisetak trukatu genituen eta nitaz harro zegoela esan zidan. Askok eskertzen diot.

Denboraldia amaitu bitartean, Athletic ez du askorik jokatu, baina aurkariek bai. Besteen etorkizunaren epaile izan zaitezke.

Bai, Atletico Madrilen eta Sevillaren kontra sustoa emateko gai garela erakutsi dugu, eta maila handiko taldeen aurka irabazteko ahalmena dugula. Guk liga amaitu arteko partidu guztiak lehiatu behar ditugu. Azkenean, dinamika on bat hartzea garrantzitsua da taldearen animoari eta hurrengo denboraldiari begira.

Errege Kopako final bietan ez zenuen jokatu, baina barrutik bizi izan zenituen. Zelan asimilatzen dira hain kolpe latzak?

Denboraldi berean hiru final jokatu ditugu eta historia egin dugu, Athleticen ez delako horrelakorik egin aurretik. Bat irabazi genuen eta bi galdu. Superkopa irabazita taldea ondo zegoen. Realaren kontrako finalaren atarian, bagenekien zaleek zelako ilusioa zeukaten eta presio hori sentitzen genuen. Egia esanda, final hura eta Bartzelonaren kontrako galtzea gogorra izan zen, eta barneratzeko gatxa. Baina porrot bien ostean, burua altxatzen jakin dugula uste dut, emaitza onak lortu ditugu eta.

Amorebietan eta Durangoko Kulturaleran, bietan jokatu duzu. Jarraitzen diezu euren gaurkotasunari?

Bai, adi egoten ahalegintzen naiz. Talde bietan ditut ezagunak. Gustatzen zait zer egiten dabilzan jakitea. Estimua handia diet talde biei. Benetan desio dut Amorebieta Bigarren Mailara igotzea eta Durangoko Kulturalera dagoen mailan mantentzea.

Zelan aldatu da zure bizitza pertsonala lehenengo taldean zaudenetik? Askok aldatu da. Inork ez ezagutzen pertsona ezagun bat izatera pasatzen zara, edo behintzat badakizu ezagutu zaitzaketa. Ikasi behar duzu noiz ibili jendearen bistan eta noiz ez.

Zelan daramazu besteen eredu izan behar hori?



Lehenengo taldeagaz sartutako lehenengo gol ofiziala aititari eskaini zion.



Joan zen asteburuan bere bigarren gola sartu zuen lehenengo taldeagaz Osasunaren kontra.

Alderdi hori ere hor dago, bai. Lagunekin afaltzen zaudenean, lasai eta dibertitzeko gogoz egoten zara, baina kontziente izan behar duzu non zauden. Egoki jokatzeko jakin behar duzu. Umeen ametsa Athleticen jokatzeko da eta talde horretako jokalaririk bat desegoki jokatzeko ikusiz gero, hori imitatuko dute eta ez dago ondo. Umeen eredu gara eta horren arabera jokatu behar dugu. Baina, tira, nik ondo daramat hau guzti hau. Nire herrian, Zornotzan, lasai ibiltzen naiz. Argazkiak ateratzeko eska-

tzen didatenean ez dut arazorik, eta adeitsu erantzuten dut beti.

Umeek ala nagusiek, nork eskatzen diezu argazki gehiago?

Umeek, gurasek eta adin guztietakoek, aitita-amamek ere bai. Zornotzan ohituago daude ni kalean ikustera, betidanik ikusi izan nautelako, eta lasai ibili naiteke. Bilbon, esaterako, gehiago geratzen naute, agurtzeko edo argazki bat ateratzeko. Baina ogibideagaz batera datorren zerbait da eta oraingoz ondo daramadat.

Zein jokalaririk zenuen gogoko umetan?

Ronaldo Nazario de Lima gustatzen zaitzaidan, bere indarragaitik eta golak sartzeko zuten ahalmenagaitik. Ez zuten nire postuan jokatzeko, baina asko gustatzen zitzaidan.

Futbola ez denean, zer kirol egitea gustatzen zaizu?

Denboraldian zehar geure burua ondo zaindu behar dugu eta ezin gara beste kirolean ibili. Uda dago horretarako. Baina, umetan, edozein kirolean jolasten nintzen. Beti gustatu izan zait kirola egitea, eta edozertan moldatu naiz ondo.

Durangoko Udalak oktogonoan birkokatu gura du Izarra elkartea, eta Geu Be astronomia gelara lekualdatu gura du

Udalak gela bi eskaini gura dizkio Izarra elkarteari. Oktagonoko gela bat eta oktagonoren sarreran sortuko duten beste gela bat. Bestalde, alde biek astronomia lantzeko zerbitzua berreskuratu dezan eskatuko diote Eusko Jaurlaritzari



Durangoko Udalak gela berri bat sortuko du oktagonoren erdigunean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Pinondo Etxea zarratu behar izateak herriko elkarten egoitzak birkokatu beharra ekarri zuen, eta Durangoko Udalak mugimendu berriak egon daitezkeela iragarri du asteon. Azken mugimendu horiek Izarra elkarteari eta Geu Be eragiten diete. Hauxe da kontua: Durangoko Udalak oktagonoa eskaini gura dio Izarrari. Eta orain arte elkarte honek baliatu izan duen astronomia gela, Geu Be elkarteari.

Izarra elkartea eta Durangoko Udala kokapen berriari buruz berba egiteko batu dira asteon. Udalak honako hau planteatu du: oktagonoko gela bat eta oktagonoko hall-ean eraikiko litzatekeen gela berri bat Izarra elkarteari esleitzea.

Horretarako, udalak jakinarazi du gela berri bat sortuko duela eraikineko hall-ean. Gela berri hori metakrilato gardenez osatutako itxitura batez eraikiko da, eraikineko zutabeak baliatuta. Udaleko eta Izarra elkarteko ordezkariak gaur joango dira bertara, eraikina ikustera eta lekuak eskaintzen dituen aukerak baloratzen.

Bestalde, ez dago argi astronomia lantzeko zerbitzuagaz zer gertatuko den. Irakasle lanak egiten zituen zientzilariek erretiroa hartu zuen eta zerbitzua etenda dago ordutik. Durangoko Udalak dioenez, Hezkuntza Sailak ez dio zerbitzuari jarraipenik eman, hainbat bider eskatu dion arren. Asteon jakinarazi dutenez, berriro egingo dute eskaria. Alde biek, Durangoko Udalak eta Izarra elkarteak, astronomia zerbitzua berreskuratzeko eskatuko diote Jaurlaritzari. Jaurlaritzak eskari hori aintzat hartuko balu, oktagonon eskainiko litzateke zerbitzua, Izarrak hartuko dituen gela bietako batean.

Gorka Palaciosen alabari bisitak kendu dizkiotela salatu du Sarek

Pandemiaren "aitzakiapen" ezingo du aita bisitatu kartzelan Sarek dioenez. Presoaren alabak 11 urte ditu

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

"Gorkaren alabari geratzen zitzaizkion azken bisitak kendu egin dizkiote, pandemia aitzakia hartuta. Gainera, aitagaz aurrez-aurre egoteko aukerarik barik jarraitzen du", salatu du Durangoko Sarek hebedeetara bidalitako oharrean. Euskal presoaren eskubideen aldeko mugimenduak dioenez, "azken urte hau bereziki gogorra izaten ari da bisiten gaiari dagokionez". 11 urte beteta dituzten umeei "elkarbizitza bisitak izateko eskubidea" kentzen dietela salatu dute. Horixe da, hain zuzen ere, Gorka Palacios preso durangarraren kausa. Palaciosen 11 urteko alaba du. Eta Sarek dioenez, adin horretatik aurrera, "gurasoekin egoteko beharrezana desagertu egingen" da

kartzela arduradunen esanetan. Erabakia salatu dute. "Badakigu jakin nerabezaroa etapa konplexua dena pertsona baten bizitzan, eta, haurtzaroan lez, nerabeek helduen babesa izateko eskubidea eta beharrezana dute", adierazi du

Erabakia "ulertezina" dela dio Sarek; umeak gurasoengandik gertu egon behar dutela dio

Sarek. Erabakia "ulertezina" iruditzen zaio eta Motxiladun Umeak gurasoengandik gertu egoteko bermea "exijitu" du, bere esanetan "haurren ongizatea delako helburu nagusia".

Arripausuetako ondarearen zati handi batek zutik jarraituko du aurrerantzean

Presaren zati bat bere horretan mantenduko dute. 'Deabruaren Zubia' beste leku batera lekualdatuko dute



Arripausuetako presa Ibaizabal errekan dago, Durango eta Iurreta artean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Halantxik jakinarazi du Durangoko Udalak. Arripausuetako ondarearen zati handi batek zutik jarraituko duela aurrerantzean, nahiz eta parte gutxi batzuk bota egin beharko dituzten. Udalak azaldu du urte biko negoziazio bileren ostean akordioa lortu duela URA agentziagaz. Honako hau da adostasun horren emaitza: Bat. 'Deabruaren Zubia' lez ezagutzen dena "harririk harri" deseraiki eta beste leku batean berreraiki dute. Udalak ez du oraingoz kokapen berriari buruzko xehetasunik eman. Bi. Presatxoaren erdiak zutik jarraituko du. Hau da, Durangoko lurretan dagoen partea. Izan ere, Durangoko Udalak aurreratu duenez, URA lurretari dagokion presa zatia botako du. Eta hiru. Pasabidea bere horretan utziko dute.

Udalak esan du uholde-arriskuak murriztearen eta ondarea babestearren arteko "oreka" lortu dutela, eta ildo beretik jarraituko dutela.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 14a
19. urtea - 849. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Beste bultzada bat Durangaldeko baserriarren produktuak bistaratu eta tokiko ekonomia garatzeko

Eskualdeko baserriarrek, dendariak eta Urkiola Landa Garapenak 'Elikatu Durangaldea' proiektua aurkeztu dute



DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Tokiko ekonomiak beste bultzada bat izango du. Durangaldeko baserriar ekoizleek, dendariak eta Urkiola Landa Garapenak 'Elikatu Durangaldea' proiektua aurkeztu dute asteon. Honako hau da proiektuaren helburu nagusia: eskualdeko baserriarrek ekoizten dituzten produktuei ikusgaitasun

45 baserriar ekoizle eta 22 dendarik egin dute bat 'Elikatu Durangaldea' programagaz

handiagoa ematea. Helburu hori lortzeko bat egin dute eskualdeko 45 baserriar ekoizleek, 22 dendarik eta Urkiola Landa Garapenak. Eta zergaitik sortu da proiektu hau? Bada, Urkiola Landa Garapeneko teknikari Ibon Goitiaren berbetan, gure eskualdeko produktuek "orain arte ez dutelako behar besteko ikusgarritasunik izan". Eta zelan emango zaie ikusgarritasun handiagoa? Bada, ekoizle eta den-

darien arteko aliantza sustatuta. Proiektura batutako baserriar ekoizleek eskualdeko dendariak eskuetan ipiniko dituzte euren produktuak. Eta dendariak arreta berezia eskainiko diete produktuei euren komertzioetan. Horretarako, tresna identifikagarri berriak ipiniko dituzte dendetan. Dendari bakoitzak kartel bat izango du dendan ikusgai. Kontsumitzaileari gogoraraziko diote denda barruan Durangaldeko produktuak eskuragarri daudela. Bestetik, produktu bakoitzaren ondoan beste txartel bat egongo da, beltz kolorekoa, eta hainbat informazio eskainiko du: produktuaren izena, ekoizlea zein den, jatorrizko herria zein duen, eta prezioa.

Egitasmoa zabalik

Urkiola Landa Garapeneko presidente Orlan Isoirden esanetan, proiektu hau "Durangaldetik, Durangaldeko eta Durangalderako" bokazioz sortu da eta ekoizle-dendariak ekonomia garatzen lagunduko du. Dendari eta ekoizleak informazioa gura duenak www.durangaldeaalikadura.eus atarian topatu dezake gehiago. Dena dela, antolatzaileek adierazi dute egitasmoak zabalik egoten jarraitzen duela, eta gura duten ekoizle eta dendariak bertara batu daitezkeela.



Lantegi Batuak zentro berria zabaldu du Iurretan

IURRETA • A.B./J.G.

Lantegi Batuak gizarte ekonomiko erakundeak zentro berria zabaldu du Iurretako Arriandi industrialdean. Zerbitzu berria ezagutzera emateko, prentsa deialdia egin zuten atzo. Aurkezpenean azaldu zuten, teknologiarik berrienekin ekipatuta dago azpiegitura, eta 60.000 erreferentzia biltegitzeko gaitasuna dauka 5.000 metro koardotan. Gainera, "malgutasun eta berehalakotasun irizpideen arabera kudeatuta dago". Zentro hau martxan ipinita, 19 lanpostu

berri sortu dituzte adimen-desgaitasuna duten Durangaldeko pertsonentzat.

Zentro logistiko honetan, 3.000 eskaera-linea kudeatu daitezke. Arriandiko zentroan eginitako bisitan adierazi zuten, "Jauzi kualitatibo bat izan da zerbitzuan", 400 enpresa baino gehiagoko sare anitz baten barruan. Deneriko enpresak dira: tokiko enpresa txiki eta ertainak, nazioarteko konpainia handiak, eta hainbat sektoretakoak ere bai. Bezeroen artean, automobilgintzaren sektoreko hainbat

enpresa dago (Cie Automotive, Cikaute...). Energia arloko enpresa ezagunekin ere jarduten dute (Euskaltel, Velatia...).

Iurretako zentro logistikoaz gainera, Lantegi Batuak hiru industria zentro ditu Durangaldean; bi Abadiñon eta bat Zornotzan. Era berean, lorezaintza-zerbitzuak eskaintzen ditu Durangon eta Zornotzan, eta baita Durangaldeko Mankomunitatean ere. Guztira, Durangaldeko 384 herritarrek lan egiten dute Lantegi Batuak, zerbitzu hauek zein industria zentroetan.

Gure Lanbide Heziketa

Zatoz ATE IREKIETARA maiatzak 20 eta 27, 15:30etan

Osasun-baldintzak bermatzeko aforo mugatuak egongo dira. EMAN IZENA!

94 616 90 02 info@leartik.eus www.leartik.eus





Irati Aiesta Landaluze

Zornotzako Harrera Taldea

ZORNOTZA | 1990

Esan daiteke, beraz, gertuko ekonomia bat garatzen duzuela. Tokiko ekonomia lantzen duzue batetik, eta urrutitik datorrenari gertutasuna eskaintzen diozue, bestetik.

Bai. Ez dugu bata bestea barik ulertzen. Urrutitik datozen herritarrak ez datoz kapritxo. Euren bizia Mediterraneo itsasoan arriskuan ipintzen dutenak ez datoz kapritxo. Haien herrialdeak husten ditugulako, ustiatzen ditugulako datoz. Gure kontsumo ohiturak dira migrazio horien eragile nagusiak. Beraz, ez du zentzurik betiko kontsumo ohiturekin segitzeak. Alternatiba bat eraiki behar da. Gaur egungo kontsumo erudian ez du inporta elikagaiak nondik datozen, zelan ekoizten diren. Ostera, hemen ditugun produktuak badakigu nondik datozen, badakigu barazkiak modu agroekologikoan hazi direna, modu kolektiboan ereindakoak direna edo animaliek zaintza egokia izan dutena.

Kafetegiak zelako harrera izan du herritar migratzaileen artean?

Lanean ez badaude ere, laguntzera eta bisitatzera etortzen dira. Hemen herritarrago sentitzen direla esaten digute. "Hemen jendeak nigaitik galdetzen du", "zelan nagoen galdetzen didate", "kaletik noala agurtu egiten naute". Halakoak esaten dizkigute. Bestalde, euskarari buruz ere ikasi dugu zerbait. Hemen konprobatu ahal izan dugu euskara beharizan modura sentitu behar dela, horretarako baldintzak sortu behar direla. Pertsona migratzaile batzuek aitortu digute espazio honetan daudenean euskara ikasteko beharizan sentitzen dutela. Hasita daude horretan. Agurrak, zenbakiak, produktuen izenak ikasi dituzte dagoeneko.

“Bizkargi kafetegia ez da negozio bat, proiektu sozial bat finantzatzeko tresna da”

la sei hilabete pasatu dira Zornotzako Bizkargi kafetegi sozialak atek zabaldu zituenetik. Ezohiko negozioa da, bertan irabaziriko dirua Harrera Taldearen proiektuetara bideratzen dute eta. Tokiko produktuen erakusleho eta hartu-emanetarako topaleku ere bada

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Kafea eskatzera sartu da herritar bat. Aldameneko mahaitxoan, hiruzpalau lagun, gosaltzen. Brokolirik salgai ba ote duten galdetzerara sartu da zornotzar bat. Ogia erostera beste bat. Eta halantxik, egunero. Halakoxea delako Bizkargi kafetegiaren eguneroko martxa. Erdi kafetegi, erdi denda. Zornotzako Harrera Taldeak sorturiko lokala hango zein hemengo herritarrei zabaldua dago. Harrera Taldeko kide Irati Aiestak erantzun die galderei.

Bizkargi kafetegi soziala establezimendu bat baino gehiago da. Zelan definituko zenuke?

Bizkargi ez da negozio bat. Proiektu sozial baten tresna da. Zornotzako Harrera Taldeari auto-finantzaketarako bidea ematea da taberna honen helburua. Azken finean, gu ez gabilta modu autonomoan lanean. Arteko Harrera sareagaz elkarlanean gabilta. Bizitzeko alternatibak eraikitzen ditugu elkarregaz. Eta, horrenbestez, negozio bat izatetik harago, Bizkargi proiektu sozial bat finantzatzeko bidea da.

Zeintzuk dira bere helburu nagusiak?

Hainbat helburu ditu. Batetik, erregularizazio bidea oso gaxt duten

herritarrei aukerak eman gura dizkiegu lan mundura sartzeko. Bestetik, gizarte alternatiba bat eraiki gura badugu, horretarako baliabideak sortu behar direla uste dugu. Horregaitik, beharrezkoa da kontsumo bideak eraldatzea, eta kontsumo eredu justuagoak eta gertuagokoak sustatzea. Azkenik, elkargunerako topaleku bat eskaini gura dugu. Aniztasunean oinarrituriko gizartea irudikatzen dugunez, aniztasun hori islatuko duen lokal publiko baten beharizan sentitu dugu.

Irabazi asmorik bako kafetegia dela diozue. Zelan antolatzen duzue aktibitate ekonomikoa?

Gaur egun, nominan ditugu langileak. Tabernan irabazitakoagaz langile horien soldatak estaltzen ditugu. Baina hortik kanporako irabazi guztiak ez dira gure probetxu propiorako. Helburu soziala dute. Kasu baterako, alokairua ordaindu ezinik dabiltzanei laguntzen diegu. Berdin Harrera Taldeko beharizanak estalita. Hemen sortzen dugun ekonomiagaz Arteko ortuetan dabiltzanei beharra eskaintzen diegu. Hemengo ekoizleei ere leiho bat zabaltzen diegu euren produktuak saltzeko. Azken finean, helburu sozialak dituen ekonomia bat sortzea da asmoa.

“Pertsona migratzaile batzuek aitortu digute espazio honetan euskara ikasteko beharizan sentitzen dutela. Hasita daude horretan”

“Gure kontsumo ohiturak dira migrazioen eragile nagusiak, beraz, ez du zentzurik betiko ohiturekin segitzeak”





Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 **Zurgintza**


EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Berrizko pentsiodunek 500 bat sinadura batu dituzte Eguneko Zentroa eta Jubilatuen Etxea egiteko

'Berriz nola hobetu' prozesu parte hartzaileak emandako emaitza eta proposamenak kalera atera dituzte

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herria zelan hobetu daitekeen jakiteko asmoz, 2017ko otsailaren 20an prozesu parte-hartzaile bat ipini zuten martxan Berrizen. 55 urtetik gorako pertsonen iritzi eta proposamenak batzea zen prozesuaren asmoa. "Prozesua hasi zenetik, 10 bat batzar egin ditugu eta denetan beharizan bera agertu da: herrian pertsona nagusientzat Jubilatuen Etxe duin bat izatea eta Berrizen Eguneko Zentro bat egitea", azaldu



Berrizko pentsiodunek sinadurak batu zituzten joan zen astean.

Eskaeragaz batera edo mozio bidez, sinadurok udaletxean aurkeztuko dituztela jakinarazi dute

du Jon Barcena Berrizko Pentsiodunen Mugimenduko kideak.

2021eko apirilaren 29an eman zioten amaiera prozesu parte hartzaileari, eta, harrezkero, euren proposamenagaz kalera irten eta sinadurak batzeari ekin diote. Pen-

tsiodunen eskaria argia da, eta euren helburua "nagusiak bizitzaren erdian ipintzea". Hori dela-eta, honako eskari hau egiten dute: beste lokal bat bilatzea eta Jubilatuen Etxea bertara eramatea. Eta, horrez gainera, Eguneko Zentro bat ere sortzea eremu horretan. "Egungo Eguneko

Zentroaren kokapena ez da ona eta instalazioa bera ere ez dago ondo. Udalak 400.000 euroko proiektu on bat du Jubilatuen Etxean lanak egiteko, baina kokapena ez da ona eta beste gune bat ipintzea eskatzen dugu", azaldu dute pentsiodunen mugimenduko kideek.

Hori eskatzeko asmoz, asteburuan kalera irten dute sinadurak batzen. Guztira, 500 bat sinadura batu dituzte. "Oso pozik gaude", azaldu dute pentsiodunek. Orain, eskaeragaz batera edo mozio bidez, sinadurok udaletxean aurkeztuko dituztela jakinarazi dute.

Maiatzaren 23ra arte dago aukera Berrizko udalekuean izena emateko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak Bizi Berriz Udandak udalekuak antolatu ditu 4tik 16 urtera bitarteko umeentzat, eta herritarrek gaurtik maiatzaren 23ra arte izango dute aukera bertan izena emateko. Plazak mugatuak izango dira eta izen-ematea www.berriz.eus webgunean egingo beharko da, Bizi Berriz atalean.

Udalekuak uztailearen 5etik 23ra bitartean egingo dira eta astebetekoak izango dira

Udalekuak uztailearen 5etik 23ra bitartean egingo dira, 10:00etatik 13:00etara, eta astebetekoak izango dira. Udandak ere euskaraz gozatzea da helburua, eta tailer horietan askotariko jarduerak izango dira: mendi martxak, espeleologia, ginkana, logika jolasak, mundu jolasak, orientazioa eta ur jokoak, besteak beste.

Elorrioko Udalak ekainaren 14an zabalduko ditu Eleizaldeko igerilekuak

Maiatzaren 10etik instalazioetako abonua tramitzatzeko aukera dago. Udaletik azaldu dutenez, "segurtasuna bermatzeko erraztasunak" ematea da horren helburua

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorrioko Udalak ekainaren 14tik irailaren 19ra zabalduko ditu Eleizaldeko kanpoko igerilekuak. Uda honetan, osasun krisiak markatuko du denboraldia, eta, hori dela-eta, udalak prozesua aurreratzea erabaki du. Dagoeneko hasi dute instalazioetako abonua tramitzatzeko kanpaina. "Helburua na-

gusia erabiltzaileen eta langileen segurtasuna bermatzen jarraitzea da. Horregaitik, lehenengo pausoa izena emateko erraztasunak ematea da", azaldu dute udaleko arduradunek.

"Gertutik" jarraituko diote pandemiaren bilakaerari, eta uneanean segurtasuna bermatzeko dauden osasun neurriak betez

jardungo dute. "Aurten ere, kontingentzia-plana eta instalazioak erabiltzeko protokoloa izango ditugu. Beraz, funtzionamenduari buruz hartutako erabaki bakoitza indarrean dagoen araudian oinarrituko da, eta etorri daitezkeen aldaketetara egokituko da", adierazi du Dani Palacios Elorrioko Udaleko kirol zinegotziak.



Igerilekuak irailaren 19ra arte egongo dira zabalik.

Elorrioko merkatariek 'Gozatu udaberria, bizipoza herrian' kanpaina hasi dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko merkatariek kanpaina berri bat martxan ipini dute astean: *Gozatu udaberria, bizipoza herrian*. Herritarrek Elorrioren erostea izango da kanpainaren asmoa, eta maiatzaren 23ra arte egongo da martxan.

Merkatari elkarteak kideek komertzioetako erakusleihoak apainduta eman diote hasiera kanpainari. Horrez gainera, apirilaren 22an Zintziliken eskutik herriko plazan egongo den Emozioen Laborategian parte hartzeko sarreraren banaketari ere ekin diote. 144 sarrera dira guztira eta zozketa baten bitartez banatzen dabilta herriko komertzioetan. Baina Emozioen Laborategiko sarreraren zozketa ez da EMeko kideek egingo duten zozketa bakarra. Maiatzaren 17tik 23ra, komertzio bakoitzeko produktuen poltsak zozkatuko dituzte.

Kanpainari maiatzaren 22an emango diote amaiera, Emozioen Laborategiagaz eta musikagaz.

Eukaliptoaren landaketa arautzeko ordenantza bat egitea eskatu du EH Bilduk

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR


Joan zen asteko osoko bilkuran, Atxondoko EH Bilduk eukaliptoaren landaketa arautzeko lukeen ordenantza bat egitea eskatu zuen mozio baten bitartez. Mozioak aurrera egin du, Atxondoko Udaleko alderdi bien, EAJren eta EH Bilduren, aldeko botoekin.

Atxondoko EH Bildukoek honako eskaera hauek egin zituzten mozioan: batetik, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritu arte eta lurzorua erabilera posibleak zehaztu arte udalerririk guztian eukalipto landaketa debekatzea. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eratzea ahalik eta arinen; eta, azkenik, Foru Aldundiek baso-politikak aldatzea, euren lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez dadin eta titulartasun publikoko zein pribatuak mendietan egun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifikatu dadin.

MAÑARIKO MAIATZA KULTURALA



14 barikua
UNIDAD ALAVESA
18:30etan Herriko Plazan



15 zapatua
BIDEAK DOKUMENTALA
17:30etan liburutegi zaharrean.



16 domeka
**XABI SOLANO MAIZA
& KIMUA DANTZA
KOLEKTIBOA**
12:00etan Herriko Plazan.



21 barikua
**IXABEL AGIRRESAROBE
KONTU KONTALARIA**
UMEENTZAT: 17:30etan.
HELDUENTZAT: 19:00etan.



22 zapatua
ERRAIK DOKUMENTALA
17:30etan liburutegi zaharrean.



23 domeka
AZOKA
10:00etatik aurrera plazan.

OHAR GARRANTZITSUAK:

* **Ekintza guztietan parte hartzeko izena eman behar da.** Horretarako, deitu udalera Maitzaren 7a orduko.

* Egun bizi dugun osasun egoera dela eta, **ezarritako neurriak bete beharko dira.**





Ataungo taldearen 'Made in Germany' lan berria orain aste bi ateratu zuten merkatura.

"Harrituta gaude gure kontzertuetarako sarrerak zein arin agortzen dabilzan ikusita"

Unidad Alavesa talde gipuzkoarrak disko berria aurkeztuko du gaur Mañarian

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Aste Kulturala gaur arratsaldean hasiko da, Unidad Alavesa taldearen kontzertuagaz. 120 lagunek izango dute ataundarren zuzeneko ikus-teko aukera, eta beste asko go-goagaz geratuko dira. Izan ere, sarrerak eskuragarri ipini eta ia segituan amaitu ziren. Azkenaldian askotan gertatu zaie hori. "Gu ere apur bat harrituta gaude gure kontzertuetarako sarrerak zein arin agortzen dabilzan ikusita", adierazi du Iker Artza 'Papas Aja' taldeko kideak. Izan ere, Mañariko ez da salbues-

pena. Iruñean, Donostian eta Gernikan eskainiko dituzten kontzertuetarako sarrerak ere minutu gutxitan agortu zirela azaldu du Artzak. Orain kontzertuek aforo mugatua izaten dute eta sarrerak arinago amaitzen dira, baina, hala ere, argi dago gipuzkoarrak ikusmina eragiten dabilzala orain aste bi kaleratu duten *Made in Germany* izeneko disko berriaren harira. Diskoaren zuzeneko aurkezpena joan zen zapatuan egin zuten, Ataunen. Euren sorterritik kanpora, Mañariko izango da abesti berriak entzuteko

lehenengo aukera. Gainera, lan berriko abesti guztiak eskainiko dituzte Mañarian.

Ekimenez beteta

Beste hainbat ekimen ere egongo da Aste Kulturalaren barruan. Zapatuan, Aritz Ganboa artzainaren erronka jasotzen duen Bideak dokumentala eskainiko dute eta, domekan, Xabi Solano Maiza trikitilari herna-niarraren eta Kimua dantza-kolektiboaren musika-ikuskitzuna egongo da ikusgai. Azkenik, aurtengo Aste Kulturala maiatzaren 23ko azokagaz amaituko dute.

Mañariko Udalak lehiaketara ateratu Errekondo tabernaren kudeaketa

Aste honetako martitzenetik aurrera, interesdunek 20 egun naturaleko epea dute proposamenak aurkezteko

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak lehiaketa publikora ateratu du Errekondo tabernaren kudeaketa. Martitzenetik publiko dago baldintza orria, eta egun horretatik hasita interesdunek 20 egun naturaleko epea dute euren proposamenak aurkezteko.

Azken urteetan hainbat bider ahalegindu dira Errekondoren kudeaketa esleitzen. 2018an hirugarren ahaleginean lortu zuten kudeaketa esleitzea, baldintza orrietan interesdun berriak era-

kartzeko pizgarriak gehitu eta gero; esaterako, alokairuaren zenbatekoa merketu zuten hasierako hileetan. Modu horretara lortu zuten tabernaren ardura esleitzea. Etapa berriak iazko urrira arte iraun zuten. Osasun krisiak utzi duen ondorioetariko bat da. Oraingo honetan ere, orduko baldintza orri bera erabili dute.

Une honetan, taberna bi daude zabalik Mañarian: U2 eta Arri-Toki. Herriko Tabernan obrak egin-gitu dituzte berriro esleitu aurretik.




Mañariko Errekondo taberna itxita dago iazko urritik.

Bihar ibilaldia egingo dute Otxandioko basoak eta ekosistema ezagutzeko

Durungaldeko Berbalagunek antolatzen duen 'Mendilagun' ekimenaren barruan izango da. Hurrengo asteetan Intxortarako eta Erdellarako irteerak egingo dituzte, besteak beste.

OTXANDIO • J.D.

Durungaldeko Berbalagunek 'Mendilagun' izeneko egitasmoa sortu zuen iaz. Eskualdeko askotariko basoak eta txokoak euskaraz ezagutzeko ibilaldiak dira, baina bertan behera utzi behar izan zituzten osasun krisiagaitik. Orain, berriro hasi dira antolatzen, Mankomunitatearen eta tokiko mendi taldeen laguntzagaz. Orain arteko irteerak harrera ona izan dute. Esaterako, bihar Urkiolatik Otxandiorako ibilaldia egingo dute eta izen-ematea beteta dago. Hurrengo asteburuan Intxortara joango dira, eta aste bi barru Erdellara. Izen-ematea durungaldea@aek.eus-en egin daiteke.



Haurreskolan umeak dituzten familientzat diru laguntza deialdia abiatu dute Mallabian

MALLABIA • J.D.

Udalak diru laguntzak emango dizkie Mallabiko haurreskolan 2020-2021 ikasturterako matrikulatuta dauden adingabeen gurasoei. Diru laguntzaren zenbatekoa Mallabiko Haurreskolako kuoten zenbatekoaren %50 izango da gehienez.

Horretarako, aurrekontuetan 10.000 euro gorde dituzte. Zenbateko hori nahikoa ez bada, diru laguntzak banatu egingo dituzte jasotzeko eskubidea duten eskatzaileen artean.

Diru laguntza eskaerak aurkezteko epea ikasturte amaiera izango da: irailaren 1etik 30era bitartean, hain zuzen ere. Eskaerak Mallabiko Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira.

Zabaldute izena emateko epea Txikonetz izurtzan emango duen berbaldirako

IZURTZA • J.D.

Alex Txikon alpinistak berbaldia eskainiko du maiatzaren 28an. 2016an Nanga Parbatera eginiko neguko lehenengo igoerako gertaerak izango ditu.

Ekimenak aforo mugatua izango du eta izen-ematea maiatzaren 23ra arte egin daiteke

hizpide mendizale lemoarrak. Orduan bizirikoak *Mendi biluzia* izeneko liburuan jaso zituen.

Emanaldia 17:30ean izango da, Izurtzako erabilera anitzeko eraikinean. Izen-ematea maiatzaren 23ra arte egin daiteke honako helbide elektronikoan: liburutegia.izurtza@bizkaia.org.

Abadiñon mendi martxa antolatu dute domekarako, AHTaren obren eragina herritarrei azaleratzeko

Ibilbideak 11 kilometro izango ditu guztira; Sagasta auzoan geldialdia egingo dute hamaiketako egiteko

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

AHTaren obrek aurrera jarraitzen dute Abadiñon. AHT Gelditu Elkarlana plataformako kideek diotenez, herrigunetik ikusten ez den arren, trenaren obrek "kalte handia" eragingo dute Abadiñon. Proiektuak herrian izango duen inpaktua azalatu guran, mendi ibilaldia egingo dute. Ibilbideak 11 kilometro izango ditu. Adin guztietarako ibilbidea dela diote antolatzaileek: "Aldats gutxiko ibilbidea da eta bidean geldialdiak egin eta azalpenak emango ditugu".

Txanporta plazatik ekingo diote martxari, 10:00etan. Mendibilar baserrian geldialdia egingo dute, eta azalpenak emango dituzte. Handik Sagastara joango dira. Auzo horretan, 11:00 inguruan hamaiketako egiteko daude. Gosentziako beheko aldean egitekoak diren

hondakindegia ere ikusiko dute. Plataformako kideek diotenez, zuloa eginda dago dagoeneko. Irazola auzora ere joango dira. Bestalde, Irazolako beheko aldean dagoen baserri ondotik ere pasatuko dira. "Obrak egiteko,

kamioiak bertatik pasatu behar dira. Horretarako, bertatik pasatzen den erreka txiki bat tapatu egin behar dute. Baserri horretan aurretik ere arazoak dituzte uragaz. Arduratuta daude erreka tapatzeak izango duen eragi-

nagaz", adierazi dute. Bestalde, Mendiolako sarreran bisoi europarraren araudia dela-eta zubian obrak geldituta egon direla diote plataformakoek. Hala ere, dagoeneko berriro martxan hasi direla azaldu dute.



AHT Gelditu Elkarlaneko agerraldi bateko irudia.

Ezkontzetako eta jaunartzeetako bazkarien falta igarri dute Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Bistakoa da. Ez da ospakizun handietarako sasoi. Eta udaberriro ezkontzak zein jaunartzeak hartu izan dituzten jatetxeek ondotxo dakite hori. Adibidez, Garaiko Herriko jatetxeek kideek. Maiatz honetarako ez dute ezkontzarik edo jaunartzerik aurreikusita. "Ekainerako zer edo zer badugu, baina gauza gutxi", dio bertako Ana Mari Agirregomezkortak: "Bate-tik, ziurgabetasun handia dago, eta, bestetik, mahai bueltan gehienez lau lagun batzearen araua. Jendeak ez ditu ospakizunak horrela egin gura".

Indarra asteburuko menuetan eta kartan ipinita dabil-tza aurrera egiten. Dena dela, urrun daude koronabirusa baino lehenagoko garaiak.

EH Bilduk galdeketa egin gura du pump trackaren kokapena erabakitzeko

Proposaturiko hiru guneen txostena egitea gura dute. Ondoren, erabakia herri galdeketa hartzea eskatu dute

ABADIÑO • J.G.

Muntsaratzeko merenderoan pump track zirkuitua egingo duela iragarri du Abadiñoko Udalak. Bestalde, EH Bilduk azaldu du beste pauso bat ematea proposatuko duela pump track zirkuituaren kokapena erabakitzeko. "Hiru kokaleku bideragarri ditugu Abadiñon: Muntzaratzeko merenderoa, Astolako merenderoaren ondoko aparkalekua eta Traña-Matienako Urbitarte

lakua", esan dute koalizioek. Gaineratu dutenez, apiril honetan Muntzaratzen egindako saio irekietan 40 bat auzotarrez gogoeta egin zuten, eta "beste bide batzuetatik ere" jaso dute herritarren iritzia. EH Bilduk hirigintza batzordean eta plenoan aurkeztuko du proposamena. Hiru guneen inguruko txostena egin eta galdeketa proposatuko dute.

Dokumentala eta berbaldia Aldarte elkarteagaz Zaldibarren

Adin txikikoak zaintzeko zerbitzua egongo da, Zapatublaiko lokaletan, 17:30etik 20:00etara

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak dokumental bat eta berbaldi bat antolatu ditu maiatzaren 17rako, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunerako.

Dokumentala eta hitzaldia datorren maiatzaren 17an izango dira, 18:00etan, Zaldibarko liburutegi zaharrean, Aldarte elkartearen eskutik. Elkarte honek sexu- eta

genero-aniztasunaren arloan lan egiten du, eta arreta, hezkuntza eta sentsibilizazio baliabideak eskaintzen ditu.

Parte hartzeko, izena eman beharko da berdintasuna@zaldibar.eus helbide elektronikoan edo 946 827 016 zenbakian. Adin txikikoak zaintzeko zerbitzua egongo da, Zapatublaiko lokaletan, 17:30etik 20:00etara. Maiatzaren 13a baino lehen eman behar da izena.

DATAK

<i>Aurrematrikula</i>	<i>Matrikula</i>
<i>maiatzaren 31tik</i>	<i>uztailaren</i>
<i>ekainaren 18ra</i>	<i>19tik 30era</i>

ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile langabeek eta landunei zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | [@fpzornotza](https://twitter.com/fpzornotza)



Abadiñoako Rothenbergerren mobilizazioak egiten dabilta hitzarmena sinatzeko

Rothenbergerreko enpresa batzordeak grebara deitu du maiatzaren 17rako eta 19rako

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Rothenberger enpresak Abadiñon eta Gasteizen dituen lantegietan mobilizazioak egiten dabilta, eta horrela jarraitzeko asmoa dute. Enpresa batzordeak beste mobilizazio batera deitu du gaurko, eta grebara deitu du maiatzaren 17rako eta 19rako.

Enpresa batzordearen esanetan, hitzarmen berria adosteko negoziazio bilerak otsailaren 15ean hasi ziren, eta egun "blokeatuta" dago. Indarrean



Abadiñoako Rothenbergerreko langileak asteon eguniko mobilizazioan.

dagoen hitzarmenak 2019 hasieran galdu zuen indarraldia, eta enpresa "ultraaktibitatean" dago 2022ko abendura arte. "Batzordeen Osoko Bilkurak guztiz kontrara egin du enpresako zuzendaritzak negozioazio-prozesuari buruz egiten duen interpretazioa; izan ere, langileok igoera edo hobekuntzaren baten truke "zerbait" eman behar diogula planteatu du zuzendaritzak. Langileen partetik enpresako zuzendaritzari argi utzi zaio Rothenbergerren hitzarmen berria aurrekoaren gainean eraiki behar dela. Horregaitik, ez da salduko orain arte langileok lortu dugun eskubiderik", azaldu dute enpresa batzordekoek.

Politikan

Mikel Uriguena Ruiz
Herriaren Eskubidea



Ondarea

Ondarea zaintzea oso garrantzitsua izan da Herriaren Eskubidearentzat 2014an sortu zenetik. Urte hauetan hainbatetan borrokatu behar izan da Durangoko ondare artistiko-historikoa mantentzeko. Batzuetan aldeko emaitzekin eta aurkakoekin bestetan, baina borroka beti zentzu berean izan da: ondarearen aldeko apustu garbia.

2017an, esaterako, Durangoko tren geltoki zaharra behera ez botatzeko ahalegin handiak egin ziren bai kaleetan eta baita udaletik ere. Herriaren azken mendeko historiari hain hertsiki loturiko eraikina izanik, hainbeste durangarren bizitzan garrantzia izan zuen geltokia mantendu eta biziberritzeko eskaera andana egin zen. Azkenean, zoritxarrez, bota egin zuten eta gure herriko historiaren zati handi bat haizeak eramanez zuten.

2019an gobernura heldu ginenean, URak Arripausuetako pasabidea, presa eta Deabruaren Zubia botatzeko baimena emana zion enpresa eraikitzaile bati. Are gehiago, aurreko gobernu taldeak eraisketa baimentzeko dokumentuak prest zituela ikusi genuen. Urte bi hauetan, etengabeko lana egin da beste irtenbide bat bilatzeko. Azkenean lortu den konponbideak ez du jende guztia pozik utziko, kontziente gara horrekin, baina, horrela, zubia beste alde batera eramanez eta presaren zati bat mantenduz, ez dira babestu beharreko elementu hauek guztiz galduko. Orain ezer egin ezear, aldiz, urte gutxiren buruan hiru elementuak desagertuko dira.

Erabaki guztiak ez daude gure esku, baina gure esku dagoen guztia egingo dugu ondarea mantendu eta zaintzeko.

Durungaldea asteen

Durungaldeko bizikleta eskolaren udalekoa, ekainaren 28tik uztailaren 2ra

Durungaldea Durungaldeko Bizikleta Eskolak udalekuak antolatu ditu ekainaren 28tik uztailaren 2rako. 9:00etatik 13:00etara, bizikleta irteerak, jokoak eta askotariko ibilaldiak prestatu dituzte 6tik 14 urtera arteko umeentzat. Parte hartzeko, BTT bizikleta eta kaskoa behar dira. Izen-ematea elkarteko web orriari egin behar da: www.durungaldekobizikletaeskola.com.

Zaldibarko Berbalagunek dantza saioa antolatu du maiatzaren 23rako

Zaldibar Zaldibarko Berbalagunek dantza saioa antolatu du maiatzaren 23rako. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 11:00etan batuko dira, liburutegi zaharrean, eta helburua domeka goiza euskaraz eta modu dinamikoan pasatzea izango da. Horretarako, txanda bi egingo dituzte, bata helduentzat eta bestea familientzat.

Euskararen erabilera lantegietan areagotzeko konpromisoa, martxan

Durungaldea Mankomunitateak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak LANDUE egitasmoa aurkeztu dute. Euskararen erabilera lantegi barruko hartu-emanetan eta bezeroekiko aurrez aurreko hartu-emanetan areagotzea da helburua. Horretarako konpromisoa hartu dute hainbat enpresek. Tartean daude Bruss (Durango), Talleres Asca (Abadiño) eta Renault Gaurisa (Iurreta).

Iritzia

Zahar egoitzen pribatutasunaz

Zahar egoitzen pribatu izaerak dituen ondorioen gogoeta bat dakarkigu lerrootara. ELAK hainbat bider salatu izan du zerbitzu hau publikatzeko beharrezana, eta honakoa ez da besterik gabe egiten den aldarrikapena.

Enpresa pribatuen helburua ahalik eta etekin ekonomikorik gehiena lortzea izanik, langileen lan baldintzak eta zerbitzua erabiltzaileen ongizatea ere bigarren mailako arduratzen da. Alde horretatik, gure nagusien zaintza lanen kudeaketa enpresa pribatuen esku uzteak hainbat arrisku dakartzat.

Aipatutako arrisku hauek agerian geratu dira Jose Maria Azkuna erresidentzian garbitzen duten langileen kasuan. Zahar egoitza zabaldu zenetik, geroz eta funtzio gehiago egotzi izan zaizkio kolektibo honi, eta hauek gauzatzeko denporan murrizketak ugariak izan dira.

Bizi dugun pandemia garai honetan, eta birusarekiko zaurgarrienak diren pertsonak bizi diren zentroetan garbiketa zerbitzuak berdin jarraitu du. Hala, langileek desinfektatze lanak suposatzen duen karga ere euren gain hartu dute inolako babesik gabe. Eta honen aurrean zein izan da enpresa hauen erantzuna?

Langileek egoera hauek salatzea erabaki duten heinean, azken hauek errepresaliatzea – 130,5 ordu murriztu dituzte asteen kaleratzeak eta jardunaldi murrizteak eginez – erabaki dute, beldurraren politika inposatuz lan zentroetan.

Honegatik, publiko egin nahi dugu maiatzaren 20an, 12:00etan, manifestaldi bat egingo dugula, Zornotzan, egoera hau salatzen.

Kaleetan ikusiko dugu elkar!

Alazne Lete Menendez

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidaltako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

HELDUENTZAKO AHOZKO NARRAZIOA

DIEGO MAGDALENO (SEVILLA)

“EL COSO”

MAIATZAK 28
19:00 ETAN

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
*SARRERAK BIBLIOTEKAN JASO DAITEZKE

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako zigituak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BURUARI KLIK!





ITZALAK

Beheko itzal hauetatik
guztietatik,
zein dago ondo?




SUKALDEAN

Zenbat pizza zati egin ditzakezu dauzkazun osagaiekin?




DOMINOA

Marraztu dagokion
irudia lauki zurietan.





ITZALAK

Zein itzal dagokio?



LABIRINTOIA



TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko irudiko mendiak txikitik handira.



IKUSI MAKUSI

Z hizkiagaz hasten da eta A hizkiagaz amaitu. Zer da?

 Z

Beheko irudia ikusita galdera hauei erantzun.

Zenbat pertsona daude?

Zenbat txakur?




A




LETRA ZOPA

Topatu hamar instrumentu hauek letra zopa honetan.



D	T	M	B	X	I	L	O	F	O	N	O	A	B
P	S	N	H	R	W	N	H	Y	Q	C	T	K	U
M	I	U	A	I	K	W	Z	B	Z	D	F	F	S
M	H	F	R	A	V	M	J	K	Y	O	J	V	O
A	M	S	P	W	Q	D	G	B	D	R	P	E	Y
R	T	G	A	S	U	A	J	I	F	D	U	L	W
A	R	I	O	A	I	N	L	B	O	T	Y	R	G
K	O	T	R	X	P	B	D	O	J	U	O	R	O
A	N	A	Z	O	I	O	T	L	K	D	U	F	O
K	P	R	Z	F	A	R	U	I	D	D	B	N	H
F	E	R	N	O	N	R	D	N	H	O	J	F	X
D	T	A	M	I	O	A	N	A	Q	T	B	P	A
A	T	V	A	A	G	X	O	J	M	S	J	P	
Z	T	X	I	R	U	L	A	M	R	N	D	R	



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak



Ruper Ordorika

KONTZERTUA IURRETA :: Maiatzak 23

Ruper Ordorikak hasiko du Udaberri Kulturala Iurretan

Iurretako Jai Batzordeak antolatuta, Udaberri Kulturala izango da datozen hileetan Iurretan. Maiatzaren 23an ekingo diote egitarauari, Ruper Ordorikak eskainiko duen kontzertuagaz. Emanaldia Aita San Migel plazan izango da, 19:00etan.

Kontzerturako gonbidapena aurrez hartu beharko da. Iurretarek maiatzaren 12an dute horretarako aukera: plazan, 19:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 19an ere egongo da sarrera hartzeko aukera, iurretarrantzat eta gainerrako guztientzat.

Maiatzaren 14an

ABADIÑO kontzertua
Demode Quartet,
19:00etan, probalekuan.

ELORRIO kontzertua
'Garai zuri beltzen swing'
(Bart Bax!), 19:00etan,
Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak
Ana Apika ipuin
kontalaria, 17:00etan,
bibliotekan. 3tik 5
urtera arteko umeentzat
(lagunduta). Bigarren saio
bat egongo da, 17:45ean,
sei urtetik gorako umeei
zuzenduta.

MAÑARIA musika
Unidad Alavesa,
18:30etan, Herriko plazan.

ZORNOTZA bakarriketa
Bocabeats, inprobisazioa
eta beatbox-komedia,
19:00etan, Zelaieta zentroan.

Maiatzaren 15ean

ABADIÑO kontzertua
Zetak, 19:00etan,
probalekuan.

ATXONDO tailerrea
Erlate elkarteak
gídatutako tailerra,
10:00etan, Arrazolako
ludotekan. **Azoka txikia**,
12:00etatik 15:00etara,
plazan. Landare
ekologikoak eta kosmetika
organiko eta naturala.
Amillenak antolatuta.

ELORRIO lehiaketa
Akadantza Kale
Dantzen XIII. Lehiaketa,
16:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR dokumentala
'Bideak' filma, 17:30ean,
liburutegi zaharrean.

Maiatzaren 16an

ABADIÑO antzerkia
'Ametsen urtebetetzea'
(Kantu Kolore), 16:30ean,
probalekuan. Bigarren
emanaldi bat, 18:30ean.

ABADIÑO azoka
Abadiñoko emakume
sortzaile eta artisauen
azoka, 11:00etatik
15:00etara, Txanporta
plazan. Eurria bada,
frontoian egingo dute.

BERRIZ dokumentala
'Jantzari' dokumentala,
19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
'Etixerik txikiena'
(Yarleku), 18:00etan, San
Agustin kulturgunean

MAÑARIA kontzertua
Xabi Solano, 12:00etan,
Herriko Plazan.

Maiatzaren 17an

ABADIÑO antzerkia
'Babo Royal' (Ganso&Cia),
12:00etan eta 17:00etan,
probalekuan.

DURANGO dokumentala
'Lesbofobia', 19:00etan,
Andragunean. Lekua
hartzeko: andragunea@durango.eus
e-mailera
idatzita edo 94 465 70 92
telefono zenbakira deituta.
Homofobia, Transfobia eta
Bifobiaren Kontrako Eguna.

Maiatzaren 19an

ZALDIBAR ipuinak
Ixabel Agirresarobe
ipuin kontalaria, umeei
zuzenduta, 17:30ean,
Liburutegi Zaharrean.
Helduentzat 19:00etan.

Maiatzaren 21ean

ELORRIO antzerkia
'Lurrin minez', 19:00etan,
Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia
'Los olivos pálidos'
(La Red teatro),
19:00etan, Askondon.

ZORNOTZA antzerkia
'El salto de Léucade'
(ESM Teatro), 19:00etan,
Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 22an

BERRIZ musika
Ikarass + Arima,
18:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzean zehar

ABADIÑO erakusketa
Jose Mari Gastelu-
Urrutiaren margolanak,
Errota kultur etxean.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La Suerte**
barikua 14: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Ilargi guztiak**
barikua 14: 19:30
zapateria 15: 18:00/20:15
domeka 16: 18:00/20:15
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 19:30
eguztzena 19: 18:30

• **Este cuerpo me sienta de muerte**
barikua 14: 19:30

zapateria 15: 18:00/20:15
domeka 16: 18:00/20:15
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 19:30
eguztzena 19: 18:30

• **Borrar el historial**

barikua 14: 19:30
zapateria 15: 18:00/20:15
domeka 16: 18:00/20:15
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 19:30
eguztzena 19: 18:30

• **Barbie y Chelsea. El cumpleaños perdido**

zapateria 15: 16:30
domeka 16: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **El olvido que seremos**
domeka 16: 19:00
astelehena 17: 19:00

:: Zornotza ARETOA


• **EEUU contra Billie Holiday**
barikua 14: 19:00
domeka 16: 19:00
astelehena 17: 19:00
• **Sablehortz kapitaina eta eta diamante magikoa**
domeka 16: 12:00





merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

“Kultura bisuala estimulatzea gura dut, pentsaraztea zer den ikusten gabiltzana”

Jugatx Astorkia berriztarraren 'Impr pant' erakusketa Zornotzako Zelaieta zentroan dago ikusgai maiatzean zehar



Jugatx Astorkia
Artista plastikoa
BERRIZ | 1992

ARTEA • ARITZ MALDONADO

'Impr Pant' erakusketak argiaren materialtasuna eta irudiek euskarri fisikoagaz duten hartu-emanu uztartzen ditu. Jugatx Astorkia berriztarra da erakusketaren egilea. Astorkia bikaintasunez graduatu zen Arte Ederretan, 2017an. Gero, Arte Garaikideko Masterra egin zuen Pontevedran (Galizia). Bakarka egiten duen lehenengo erakusketa da. Egun, doktoretza egiten dabil, argiaren grafika zelan ikusi eta zelan ikusarazi praktika artistikoen bitartez ikertuz.

Sei piezak osatzen dute 'Impr Pant' erakusketa.

Ariketa moduko batzuk planteatu ditut bertan. Adibidez, piezetariko

batean pantaila digitaletan daudenen moduko laminak daude; bertan argia proiektatzerakoan ikusten denak erakusten du pantailan zer gertatuko litzatekeen. Horixe da erakusketaren funtsa, zer den pantaila bat, zelan lan egiten duen, eta zer den kanpora ateratzen egiten duten lana erakustea. Pantaila edo euskarri bat lez erabili daiteke karrete bateko plastikoa, adibidez, eta hortik zelan atera ikertu, pantaila digital bat izan ez arren.

Oraintxe bertan, irudi mordo dugu inguruan, baina zelan begiratzen diegu? Zelan ikusten ditugu? Erakusketagaz kultura bisuala estimulatzea gura dut, eta pentsaraztea zer den ikusten gabil-

tzana, eta zein punturaino fijasen garen irudiek esaten dizkiguten gauzekin. Ni fakultatera sartu nintzenean konturatu nintzen kultura bisualari buruz ez dakigula ezer, ez dugula oinarririk, neurri handi batean ez digutelako irakasten, ez eskolan, ez batxilerran. Ez dugu arretarik ipintzen irudietan, eta, beraz, ez ditugu

Oraintxe bertan irudi mordo dugu inguruan, baina zelan begiratzen diegu? Zelan ikusten ditugu?

ondo ikusten. Alde batetik, saturazioagaitik, teknologiatik, irudi asko ailegatzen zaigulako, baina badu zerikusia hezkuntzagaz ere, esan dudana moduan. Urteak joan ahala, kulturagaz zerikusia duten irakasgaiak kentzen joan dira, eta horren ondorioz gatzago egiten zaigu irudiak ulertzea.

Txikitatik duzu argazkilaritzarako zaletasuna?

Esango nuke betidanik izan dudala afizioa, baina ez nekien hor nuela. Osabak argazkiak ateratzen zituen, baina nik ez nekien. Orain urte batzuk, bere etxetik argazki eta negatibo piloa hartu nuen; artean, ez nekien negatibo bat zertarako zen ere, eta nire logelari gordeta utzi nituen. Karrera

amaitu eta masterra egin ondoren, negatiboak zabaldu eta ikusi nuen nik egiten nuenaren antza zutela, argiaren grafika tratatzeko moduagaitik. Ikusten da erroreak direla, zarata, baina nire kasuan gurata egindakoak, eta esango nuke bereak gura barik eginda daudela. Hor konturatu nintzen lehenagotik zetorkidala afizioa, ez dut kasualitateetan sinesten eta. Horrez gainera, bigarren eskuko kamera piloa erosi dut denbora honetan, eta nire kabuz muntatzen eta desmuntatzen ibili naiz, funtzionamendua ulertzeko, besteak beste.

Denbora honetan, bigarren eskuko kamera piloa erosi dut, eta nire kabuz muntatuz eta desmuntatuz funtzionamendua ulertzen joan naiz

Belaunaldiekin galdu egin da analogikoa?

Nik nostalgia apur bat dut. Ez dakit berpizkunde bat egongo den, ikertzen nabilen gakoetariko bat da hori. Badago negatiboekin bakarrik beharra egiten duen jendea, baina ez dakit zer gertatuko den. Niretzat biek lan egitea da garrantzitsua, analogikoagaz zein digitalagaz; behin analogikoa ulertuta, digitalagaz bestelako gauzak egin ditzakegu eta. Bateragarriak dira biak.

Baduzu asmorik erakusketa beste norabaitera eramateko?

Erakusketa Gasteizko Montehermoso kulturagunean egon da ikusgai orain arte. Handik ekarri dut eta etorkizunean beste norabait eramatea gustatuko litzaidake. Gainera, instalazio bat denez, eta erabiltzen diren materialak oso malguak direnez, erakusketa bera aldagarria da, espaziora moldatu ahalko da, eta horrek ere interesgarri egiten du.

Ni pozik nago egindakoagaz. Lehenengo aldia da nire lanekin eginiko erakusketa bat dudana, eta gauza piloa daramat esperientzia honetatik.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión



Durangon otsailean eskaini zuen elkartasun kontzertua.

Bart...Saxek saharar herriarekiko elkartasun kontzertua eskainiko du

Maiatzaren 14an izango da kontzertua, Arriolan, 19:00etan; sarrerak 3 euro balio du

MUSIKA • A.M.

Durangoko Bartolome Ertzillako Bart...Sax taldeak elkartasun kontzertua eskainiko du barikuan Elorrioren. Emanaldia 19:00etan izango da, Arriolan; sarrerak hiru euroan salduko dituzte eta lorturiko dirua Lajwad elkar-tearentzat izango da. Kontzertu honetan, Eneko Arraibi Musika Eskolako irakasleak ere parte hartuko du. Taldeak swing klasikoagaz, jazzagaz eta doinu latinoekin osaturiko errepertorioa ondu du kontzertu honetarako,

Kontzertuan batutako dirua Lajwad elkar-tearentzat izango da

Kontzertuan Eneko Arraibi Elorrioko Musika Eskolako irakasleak ere parte hartuko du

eta rock doinuak ere uztartuko dituzte.

Bart...Sax taldeak otsailaren 23an ere eskaini zuen elkartasun kontzertua, San Agustin kultur-gunean. 525 euro batu zituzten ekimenean, eta Durangoko Rio de Oro elkar-teari eman zioten dirua. "Aukera paregabea izango da musikaz gozatzeko, eta, bide batez, Elorrioko elkar-te honi laguntzeko", adierazi dute. Bart... Sax taldea 2007an sortu zuten, Bartolome Ertzilla Musika Eskolan. Itziar Castrillo irakaslea da zuzendaria.

Julio Gomezek irabazi du Berrizko kaleko pintura lehiaketa

Julio Gomez margolari leioarraren lanak irabazi du Berrizko lehiaketa ezagunaren XXII. edizioa

MARGOLARITZA • A.M.

Maiatzaren 8an, zapatuan, Berrizko XXII. kaleko pintura lehiaketa jokatu zen, eta Julio Gomezek irabazi zuen lehenengo saria. Iker Mugarrak eskuratu zuen bigarrena, eta Carlos Espigak hirugarrena. Herriko saria Karlos Berrizbeitiarentzat izan zen. Lehiaketako lanak maiatzaren

Karlos Berrizbeitiak jaso du herriko margolanik onenaren saria; 26 lan aurkeztu dituzte guztira

21era arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxean. Euskal Herriko eta kanpoko parte hartzaileen 26 lan aurkeztu dituzte guztira.



Julio Gomez, margolan irabazlearen ondoan.

Gai librean

Hitzkutaketan

Ezkutaketan jolastu dut gaur. Begiak itxi ditut, ikusten nituenak bistatik aldentzeko. Eta aldentzen hasi dira guztiak. Denak, "literatura kritika" izan ezik. Berak alde egin nahi ez duela esan dit, nahiago duela nire alboan geratu, entzuten ez ditudanak eta ikusten ez ditudanak kontatzeko.

"Nobela historikoa" geldo abiatu da, geldo eta urrun. Maiz topatzen dituguiak han urrunean. "Kondaira" eta "fikziozko nobela" batera ezkutatu dira, esku hartu dira; "txistek" korrikan dabilta, alde batetik bestera, arin, ausaz, ezkutukoak ebidentzian utzi nahian. "Saiakera filosofikoak" hutsarteak begiratzen pasatu du denbora eta pentsatzen, galdu egin du espazioaren nozioa. Jolasten ari dela ere ez daki jada. Jolasten dakien ere ez dakit jada.



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Jolasa amaitzen eta "asmakizuna" faltan dudala sumatu dut. Ez ohi du bere aurpegia hain erraz erakusten

Preso daudenak zain daude, 'por mí y por todxs mis compañerxs' oihukatuko duen norbaiten zain

10 segundoren buruan, begiak ireki eta "panfletoa" ikusi dut lehenengo. Ikusia izan nahi duena ez da beti ikusia izaten, baina panfletoa disimulu eta abstrakzio gabe plantatu da nire begien aurrean, ezkutatzeko inongo asmo gabe. "Antzerkia" eta "egunkaria" harapatu ditut bigarren, biak erdi erdian geratu direlako, bat janzen eta bestea eranzen. Eta apurka-apurka, testu guztiak agertzen hasi dira; "satira, poesia,

autobiografia..." denak agerian jar-tzen. Jolasa amaitzen eta "asmakizuna" faltan dudala sumatu dut. Ez ohi du bere aurpegia hain erraz erakusten.

Preso daudenak zain daude, "por mí y por todxs mis compañerxs" oihukatuko duen norbaiten zain. "Akziozko liburua" beste guztiak salbaterara etorri da orduan. Baina heldu orduko, hitzez eta ahotsez iragarri du bere etorrera eta orduan igarri egin dut. Denak konfiantza eta erosotasunaren arteko lekuren batean zeuden, zain. Baina heltzen harapatu dut. Geldiune horretan ez dut jakin zer egin.

Zer egiten da heroiak harapatzen direnean? Zer istorio kontatzen diogu geure buruari, heroiak hiltzen ditugunean? Ez dut jakin zer asmatu eta "ipuinak" etorri zait dena gezurra dela kontatzera, horrek lasaituko banindu bezala. Ezkutaketa jolasa bukatu da. Maitasunaren itxiera da. Edo hasiera?



Bizkaia-Durango txirrindulariak iazko Durango-Durango lasterketan. YON SUINAGA



Sandra Alonso esprintean garaile. @SETMANA VALENCIANA

Sandra Alonsok Valentziako Voltan lorturiko garaipenak indarberritu egin du Bizkaia-Durango txirrindulari taldea

Agurtzane Elorriaga Bizkaia-Durango taldeko zuzendariak aitortu duenez, txirrindulariak "gogotsu eta moralez gainezka" daude datozen lasterketarako

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR
Etxeko lasterketa den Durango-Durango Laboral kutxa Emakumeen Sariaren atarian, Bizkaia-Durango txirrindulari taldea indarberrituta dago. Joan zen asteburuan, Agurtzane Elorriagaren txirrindulariek maila oso onean daudela erakutsi zuten Valentziako Voltan denboraldiko lehenengo garaipena lortuta. Sandra Alonso txirrindularia izan zen bizkorrena bigarren etapako esprintean, eta denboraldiko lehenengo garaipena eman zion talde durangarrari. "Pozarren gaude neskek Valentziako Voltan emaniko mailagaz. Garaipena lortzeaz gainera, Sandrak laugarren postu bi ere lortu ditu eta gainerako taldekideak ere oso ondo ibili dira", adierazi du Agurtzane Elorriaga taldeko zuzendariak.

Valentziako lasterketan munduko talderik onenatariko asko egon ziren, eta Bizkaia-Durango txirrindulariek lehiakorrak direla, onenen artean daudela eta garaipenaren borrokan egoteko gai direla erakutsi zuten. "Azken egunean, esaterako, beste etapa garaipen bat ere lortzeagaz amestu genuen.

Nadine Gilek hainbat kilometro egin zuen ihes eginda. Azkenean ezin izan genuen garaipena lortu, baina oso pozik gaude egin dugun lanagaz. Neskak oso ondo ibili dira eta balorazioa oso positiboa da", jarraitu du Elorriagak.

"Valentziako Voltan neskak oso ondo ibili dira eta balorazioa oso positiboa da"

Martitzenean, maiatzaren 18an, Bizkaia-Durango txirrindulariak etxeko lasterketan izango dira

Alonsok lorturiko garaipenak indarberritu egin ditu Bizkaia-Durango txirrindulariak, eta "gogotsu eta moralez gainezka" daude hurrengo lasterketarako. "Aurreko lasterketak ez zaizkigu batere ondo irten. Lasterketa guztietan izan

dugu arazoren bat, eta aldaketatxo batzuk egin behar izan ditugu horiei soluzioa emateko", jarraitu du zuzendariak. Eginiko aldaketek fruitua eman dute Valentziako Voltan, eta Elorriagak aitortu du Bizkaia-Durango txirrindulariak indartsu daudela datozen erronketa begira.

Hurrengo lasterketak
Bizkaia-Durango txirrindularien hurrengo hitzordua Nafarroako Itzulia zen. Baina taldekide batek COVID-19an positibo eman ostean, taldea ez da Nafarroako lasterketan izango. Hala ere, domekan Eibarren jokatu den Eibarko Hiria proban eta martitzeneko Durango-Durango klasikoan parte hartuko dutela aurreikusten da. Bestalde, maiatzaren 20tik 23ra bitartean, Burgosko Itzulia egongo dira. "Momentu honetan, txirrindulariak saioi betean daude eta gorputzaldi on hori baliatzen ahaleginduko gara datozen lasterketa hauetan guztietan. Denetan geure onena ematen ahaleginduko gara lehenengo postuetako borrokan egoteko", gaineratu du Elorriagak.

Munduko txirrindularirik onenak Durango, martitzenean

Aurten streaming bidez jarraitu ahal izango da Durango-Durango Laboral kutxa Emakumeen Saria, zuzenean

KLASIKOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Juan Mari Baliarren oroimenezko Durango-Durango Laboral kutxa Emakumeen Saria goi mailako txirrindulariak batuko ditu maiatzaren 18an, martitzenean. Duranguesa txirrindulari elkarteak antolatzen duen lasterketan munduko talde eta txirrindularirik onenak izango dira. 29 taldek parte hartuko dute lasterketan, eta bertan izango dira Movistar taldeko Annemiek Van Vleuten, SD Worx taldeko Anna Van Der Breggen eta Trek Segafredo taldeko Elisa Longo Borghini.

Klasikoa 15:00etan hasiko da, Ezkurdin. Durango, Iurreta, Abadiño, Berriz, Miota, Elorrio eta Abadiño zeharkatzen dituen

zirkuituari bost itzuli emango dizkiote. Azken itzulian, Garaitik Goiuriara igoko dira. Gero, Goiuriatik Iurretara jaitsi eta San Juan Momotiotik berriro igoko dira Goiuriara. Lasterketaren azken zati horretan, %20rainoko penditza duen aldatsa igo beharko dute txirrindulariek. Aurten Urki kalean helmugaratuko dira, eta ez Ezkurdin ohiak izan den moduan. Lasterketa 18:00 inguruan amaitzea aurreikusten dute antolatzaileek.

Bestalde, ikusleei "errespetuz" jokatzeko deia egin eta osasun neurriak betetzeko eskatu diete.

Horrez gainera, lasterketa streaming bidez jarraitu ahal izango dela jakinarazi dute.

Andaluziako Linares taldea da lehenengo koska Bigarren Mailarako bidean

Amorebietak Linares taldearen kontra jokatuko du bihar, Badajozeko Nuevo Vivero zelaian



Amorebieta taldearen hamaikakoa joan zen asteburuan Calahorraren kontra jokatutako partiduan.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bigarren B Mailako 16 talderik onenak Extremaduran daude egunotan, eta euren artean dago Amorebieta futbol kluba. Hurrengo asteburu bietan, Bigarren Mailara igotzeko kanporaketak jokatuko dira Autonomia Erkidego horretako lau futbol zelaitan.

Bigarren Mailara igotzeko, kanporaketa bi gainditu behar dira. Bide horretan Amorebietak aurkituko duen lehenengo koska Linares taldea izango da. Bihar jokatuko dute partidua, Badajozeko Nuevo Vivero zelaian. Irabazlea maiatzaren 22tik 23ra izango den azken faserako sailkatuko da.

Lehenengo fasean hirugarren tokian sailkatu zenez, Amorebietari lider baten kontra jokatzea egokitu zaio. Kasu honetan, Andaluziako IV. multzoko txapeldun izandako Linares talde jaendarragaz parekatu du zozketak.

Lehenengo eta hirugarren sailkatuen arteko kanporaketek berezitasun bat dute: ez da penaltirik

Amorebietak desabantaila bat du; berdinketaren kasuan Linares sailkatuko da

egongo. Hau da, luzapenaren ondoren berdinduta jarraitzen badute, Linares sailkatuko da hurrengo fasera. Bere multzoko lider gertzearren duen abantaila bat da.

"Ilusioa" gidari

Linares aurkari "indartsua" dela dio Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak: "Oso multzo zail batean txapeldun geratu da". Kanporaketako gakoa Amorebietak bere maila ematean egongo dela uste du. "Gugan eta gure futbolearen zentratu behar dugu. Munduko ilusio guztiagaz irabaztera joango gara", adierazi du Amorebieta klubeko entrenatzaileak.

Eder Lombaren konkista berria Erresuma Batuko paretetan

Rain Shadow bidea igo eta hilabetera, oraindino zailtasun maila handiagoko 'Batman' eskalada bidea (9a/+) igo du, Steve Maclure eskalatzaile mitikoaren marka berdinduta

ESKALADA • J.D.

Eder Lomba Lopez de Ipiñaren (Berriz, 1994) azken asteetako lorpenek hedabide askoren eta eskalada munduaren arreta erakarri dute. Erresuma Batuko eskalada biderik gatxenak konkistatzen dabil. Orain hilabete inguru, Malham Cove paretako Rain Shadow eskalada bidea igo zuen, 9a mailakoa. Joan zen domekan, oraindino erronka gaxagoa gainditu zuen paret berdineko Batman bidea igota. Zailtasun maila handiagoko bi-

dea da: 9a/+. Datu esanguratsu bat: Batman paretara igo duen bigarren eskalatzailea da. Aurretik, Steve Maclure eskalatzaile mitikoarena baino ez zen ohore hori.

9b mailako 'Rainman' helburu

Lomba ez da konformatzen orain artekoagaz eta gehiago gura du. Erresuma Batuko eskalada biderik gatxenaren bila doa: 9b mailako Rainman. Behin baino gehiagotan entrenatu da bide horretan. "Aurrerapausoak egiten nabil", dio.



Eder Lomba joan zen domekan Batman izeneko eskalada bidea igotzen.

Jokaldia

Auziak eta arantzak

Ezin zitekeen beste modu batera izan, eta Zabaletaren erakustaldiarekin bukatu zen igandean eskuz binakako txapelketa. Horrekin batera indarra hartu du azken asteotan pilotazaleon artean piztu den auzi antzua; "Historiako atzelaririk onena al da Zabaleta?", "Izan al da inoiz jotzaileagorik?". Ez zaizkit horrelako eztabaidak gustatzen, erantzun ezinezkoen bila ikusten baitut jendea.

Txapelketari dagokionez, egundoko ikuskizuna eman dute txapeldunek. Atzelari nafarrak hitzik gabe utzi gaitu asteburu. Finala frontoian ikusteko zortea izan nuen, eta gutxitan sentitu dut pilotaleku baten Zabaletaren pilotakadek eragin zidaten zirrara. Aukera dagoenean zoazte Zabaletaren partidu bat zuzenean ikustera; ez zaizue damutuko.



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

"Finala frontoian ikusteko zortea izan nuen eta gutxitan sentitu dut Zabaletaren pilotakadek eragin zidaten zirrara"

"Danel praktikotasunaren eredu izan zen eta bere lanak eragin zuzena izan zuen bikotearen goranzko joeran"

Elezkanok finalean egindako partiduak aipamen berezia merezi duela uste dut. Bere lana ez zen Zabaletarena bezain ikusgarria izan, baina ezta garrantzi gutxiagokoa ere. Danel praktikotasunaren eredu izan zen eta bere lanak eragin zuzena izan zuen bikotearen goranzko joeran. Izan ere, Zabaletak zalantzekin hasi

zuen neurketa, baina Danelek bikotearen ardura bere gain hartu eta konfiantza hartzen lagundu zion. Horrez gain, derrigorrez irabazi beharrak eragiten duen presioa ere maisuki kudeatu zuen.

Bukatzeko, ezin Peñak eta Albusuk egindako txapelketa nabarmendu gabe utzi. Inor gutxi aurreikusitako aurkezpenaren egunean bikote honen ibilbidea eta merezimendu osoz dira azpitxapeldun. Txapelketa oso erregularra osatu dute eta agian hori zen beraiengandik espero ez zen ezaugarria. Peñak goraka doala berretsi du eta Albusuk, berriz, bere ibilbide luzeko txapelketarik onena jokatu du. Pertsona oso maitatua da ataundarra eta txapelaren atarian gelditu izanarekin batera arantzatzko bat sartu da pilotazale bakoitzaren barruan; baita Elezkanok eta Zabaletak irabaztea nahi genuen zaleon barrenetan ere.

DURANGALDE

Bentanetako begia

Anboto mendian, haitzean, erakusleiho paregabe hau dugu: Bentanetako begia. Urak Anbotoko kareharran egindako zulgune karstikoa da. Begitik begiratu gero, mendizaleak Durangaldearen ikuspegi ederra izango du.



KO TXOKOAK !



Urkiolako Parke Naturala

Udaberriak egin du agerraldia. Landareetan igartzen da gehien. Udaberriko loreek inguruko baso eta zelaiak jantzi dituzte. Urkiolako Parke Naturalean ateratako argazki honetan orkidea bat ikusten da.



3. atala 'Taza'

Katilu pozoitua
banatu dut.

APIRILAREN 16AN
'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 14 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 15 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 16 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 17 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 18 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 19 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 20 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Maddi, Uxue eta Lur (848. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Jon!** Domekan 12 urte egingo dituzu, egun ederra izan dezazula!



Galder Aldekoa-Otalora Seguroak 14 urte egin zituen joan den astean. Zorionak familia osoaren partez.



Zorionak, **Iurdan!** Besarkada estu bat Durangotik Martutenera! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!



Zorionak, **Garazi!** 8 udaberrri lorategiko lilirik polite-nari. Asko maite zaitugu! Zure familia guztiaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 21° / 11° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 17° / 9° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 21° / 11° ☁️

DOMEKA 🌧️ 14° / 11° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 19° / 8° ☁️

EGUENA 🌧️ 19° / 9° ☁️

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



BIZIA MIN
Jon Ander Urkiaga
(Luces de Galibo)



ARROZ UREZ
Mikel Antza
(Txalaparta)



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde
(Susana)



AITAREN ETXEA
Karmelo Jaió
(Elkar)



EDERRIKO
Karmelo Uriarte
(Labayru)

“Jatetxeko kartagaz arazoak dituztelako datoz gugana, plater berriak sartzeko”

Ostalaritza enpresek izan ditzaketen arazoei irtenbidea topatzen laguntzeko helburuagaz jaio da Kalamata aholkularitza gastronomikoa. Otsailean zabaldu dute bulegoa, Basaurin



Markel Etxaniz Urrejola

Kalamata aholkularitza gastronomikoa

BERRIZ | 1996

SUKALDARITZA • AITZIBER BASAURI
Urteetan sukaldari lan egin du Markel Etxanizek, norabide aldaketa egitea erabaki zuen arte. Bide berri bati ekin dio sei urtean Bilboko Sukaldaritza eskolan irakasle jardun duen Gorka Mota basauritarragaz: **KALAMATA** aholkularitza gastronomikoa sortu dute elkarrengaz. Jatetxe edo tabernen eskaintza gastronomikoa sortzen, kudeatzen edo berritzen lan egiten dute, eta sortu daitezkeen arazoei irtenbidea ematen. Tokiko ekoizleekin show-cooking-ak egiten dituzte azoketan.

Zeintzuk dira ostalari eta tabernarien ardura edo arazo nagusiak?

Euren lana zelan aurrera atera ez dakitela etortzen dira, negozioia

hobetzeko zein berrikuntza sartu ditzaketen galdezka. Guk negozioa aztertzen dugu, arazoak atzeman eta esku hartzeko: eskaintza gastronomikoa aldatzea edo lokalean aldatzea egitea. Batzuetan sukaldaria berrantolatzea behar da, eguneko jarduna hobetzeko. Horretarako, arkitektura estudio batek lan egiten dugu. Ostalarien premien arabera jarduten dugu. Adibidez, Berrizko Topa tabernarentzat gildentzako saltsa bi sortu ditugu, bereiztuko dituen zerbaitei eskaini gura zuten.

Eskaintza gastronomikoa da zuen indargunea?

Biok sukaldariak izanda, ostalariak kartagaz arazoak dituztelako datoz

gugana, plater berriak sartu gura dituztelako. Bada, guk karta edo plater berriak sortzen ditugu, eta 'eskandalloa' egiten diegu, hau da,

Ostalariak jatetxeko kartagaz arazoak dituztelako etortzen dira gugana, plater berriak sartu gura dituztelako

plateraren kostua kalkulatu du. Izan ere, plater batek kostu bat du eta askotan ez dakite errentagarria den ala ez. Prezioekin karta

bat osatzen dugu; errezeta liburu bat sortzen dugu, plater bakoitzaren argazkiak eta prezioa jasota. Ostalarien %90ek ez dute 'eskandalloa' egiten, eta dirua galtzen dute. Dirua irabazten dutela uste dute askok, baina gauzak ondo eginda gehiago irabaziko lukete. Lantaldea topatzen ere laguntzen dugu. Eta langileak trebatzen ere bai.

Euskal gastronomiak arrakasta du. Bisitari asko ditugu gure gastronomiak erakarrira. Hala ere, badaude leku asko oso txarto ematen dutenak. Balantza orekatu gura dugu, inork esan ez dezan txarto jan duela, ondo edo oso ondo jan duela baino. Hobetzeko premia duten jatetxetara heldu gura dugu, eskuhartu eta gastronomikoki maila gorenari eutsi diezaioten lan egin.

Oso positiboa eta langilea izan behar da jatetxe bat eramateko, mentalitate zabalekoa, osterantzean jatetxeak jan egingo zaitu

Zelan murgildu zinen sukaldaritzan?

Bokazioz hasi nintzen sukaldaritza ikasten, 16 urteagaz, eta amaitzean Bilbon lan egin nuen. Gero, Bartzelonan jardun nuen, Paco Perezegaz. Azken urte biak Arzakén jatetxean egon naiz, Donostian. Proiektu berri honi ekiteko utzi nuen lan hori.

Zein plateri ez zenioke ezetz esango?

Askok daude. Txipirotiak euren tintan. **Pandemiak gogor kolpatu du ostalaritza. Berbideratuko da egoera?**

Bai, dudarik barik. Euskaldunok ez diogu inoiz ere utziko jatetxetara edo tabernetara joateari. Kulturala da. Euskaldunok tabernan egin dugu bizimodua, ospakizunak mahai baten bueltan... Denon artean buelta emango diogu egoerari.

Zein da jatetxe bat eramateko giltza?

Motibazioa eta lantalde ona izatea. Nahikoa lan esklaboa da, eta gustuko ez baduzu infernua izan daiteke. Non zauden, zertan zabilzan eta zer gura duzun jakitea ezinbestekoa da. Hortik aurrera, sukaldean pasioa izatea da kontua. Oso positiboa eta langilea izan behar da, mentalitate zabalekoa, osterantzean jatetxeak jan egingo zaitu.

Lau-hortza

Markel Onaindia Txabarri Kazetaria



Arripausuetan

Aurrekoan, Deabruaren zubitik pasa eta Ibaizabal bazterreko bidegorritik pasioan ibili nintzen. Arbolen eta sasitzaren ostera begiratu eta hantxe ikusi nituen presa eta harri pausoak, uraren joanari eusten.

Zubirik zubi beti, azkenean Ibaizabaleko ur ertzera bueltatu berri da poeta. Zelako poza han eta hemen. Ez gara Hola errebitatik enteratu, eta esker-erak! ANBOTOren bafleetatik agertu eta esan du ez zuela Ertzaintza ezagutzen; barikuan Ernaiaren manifestazioan egin zutenagaz badu muestra bat. Gu, ba, hementxe gabiltza, ondo antzean, errotondetan biraka.

Harri pausoetan, han ibiltzen zen antzina Sarrionandia, Ibaia abestian akordatzen zenez. Han ibiltzen zen baita ere Jose Mari Uriarte, gure maisu, duela urtebete joan zitzaiguna. Eskolan maisu izan nuen, historia erakusten. Gerora, kazetaritzan itsasargi bihurtu zen niretzat, gai historikoei buruzko informante isila. Behin Arripausuetako argazki zahar bat eskatu nion, eta esplikatu zidan umetan, industriak ura uhertu aurretik, bertan bainatzen zirela egun udatiarretan, berak ere hantxe ikasi zuela igerian. Kontatu zidan, baita ere, 1937ko bonbardaketan jende askok harri pauso horietatik egin zuela ospa, Bereziganerantz. Memoria kolektiboarengatik eta beste arrazoi batzurengatik, Arripausueta babestu beharreko ingurunea zela defendatzen zuten.

Presa, harri pausoak eta zurbia desagertzeko arriskuan zeuden, etxe eraikuntzaren mesedetan. Baina badirudi udala eta URA agentzia akordiora heldu direla. Ea ba horrela den. Ze, Sarrionandiak zioen lez, oroimena gara, oroimena ala ia ezer ez.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

946810058
www.maristak.com

www.maristak.com





ATE IREKIAK LH
Etapa guztiak - Online
Maiatzak 19 18:00etan
Goi Mailak - Presentziala
Maiatzak 26 18:00etan

LH
Aurrematrrikulak
Maiatzak 31tik
Ekainak 18ra

ateirekiak.maristak.com

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza





